

# Kolosala izango da

**Joseba Sarrionandia**

Aixerrota BHI  
A. R. ikaslea  
2004/05

## ○ JOSEBA SARRIONANDIA

1958ko apirilaren 13an, Iurretan jaiotako idazle bizkaitarra dugu Joseba Sarrionandia Uribelarrea. Euskal Filologian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta fonetikako irakasle izan zen Bergarako UNEDen. Gaztetatik hasi zen literaturaz eta zinemaz zenbait aldizkaritan idazten: *Ibaizabal*, *Zeruko Argia*. Sasoi hartan, *Pott* bandaren sortzaileetako bat izan zen, beste euskal gazte idazle batzuekin batera, egun ere oso ezagunak direnak hala nola: Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde,...1980an atxilotu zuten ETako kidea izateagatik. Epaitu eta hogeita zortzi urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Urte berean hiru literatur sari irabazi zituen, *Maggie*, *indazu kamamila* eta *Enperadore eroa* ipuinekin, eta *Izuen gordelekuetan barrena* poema bildumarekin.

1985eko uztailaren 7an, San Fermin egunez, Martuteneko espetxetik ihes egitea lortu zuen, bertan izan zen kontzertua amaitu ondoren baffle batean sartuta. Handik aurrera, klandestinitatean bizi da. Sinbologia iradokorra erabiltzen du bere olerkietan. Hainbat itzulpen ere burutu ditu. Honetaz gain, magia, lilura, exotismo eta sentiberatasunean ispilu diren obrak garatu ditu:

- *Narrazioak (1983)*
- *Ni ez naiz hemengoa (1985)*
- *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak (1985)*
- *Atabala eta euria (1986)*
- *Marinel zaharrak (1987)*
- *Ez gara gure baitakoak (1989)*
- *Ainhoari gutunak (1990)*
- *Hezurrezko xirulak (1991)*
- *Gartzelako poemak (1992)*
- *Hnuy illa nyha mjah yahoo (1995)*
- *Hitzen ondoeza (1997)*
- *Lagun izoztua (2001)*
- *Kolosala izango da (2003)*

Bere poesia *Marinel zaharrak* (1987) eta *Gartzelako poemak* (1992) obretan garatu zuen, bidaiarako nostalgia eta iraganaren malenkonia eguneroko bizimodu gogorarekin tartekatuz, hasierako poemagintzan zuen kultismorako joera gaindituta. *Hnuy illa nyha mjah yahoo* (1995) liburuarekin obra poetikoaren bilduma eta ziklo oso baten gailurra topatu zuen, euskal lirika barnean obra garrantzitsu bat izanik.

## ○ SARRERA

Aurretik esan bezala, aztergai dugun obra hau, J. Sarrionandiak idatzitakoa da. Honetan azaltzen zaizkigu ume batek 1936ko gerrak irauten duen bitartean, bizitako esperientziak. Euskal ume baten bizipenak dira zalantzarik gabe, euskal kostaldeko ohiko herri txiki batean gertaturikoak, Kalaportun hain zuzen ere. Nahiz eta hau, fikziozko herria izan. Liburua irakurtzen joan ahala, etxean zein herrian jazotako gertaerek haurra heziko dute pixkanaka, ia-ia oharkabea. Honela, hasiera batean gerra ikusmen handiz desiratzen zuten haurrek, honen amaieran goibel azalduko zaizkigu, gudak sortutako sufrimendua beraiek ere pairatuko baitute. Hau da, istorioan zehar, gerraren faseak ez dira oso garrantzitsuak izango

.../...

.../...

gure pertsonaiarentzat. Ezaugarri hau dela eta, autoreak ez ditu gertakari historikoak sakonki azaldu. Baina jakina, pertsonaia nagusia heldu bat izango balitz ziurrenik askoz ere garrantzi handiagoa hartuko lukete.

Haurren ikusmoldea azaltzeko, autoreak, baliabide estilistikoak erabiliko ditu sarritan, honela; konparazioak, onomatopeiak,... maiz aurki ditzakegu. Beti ere, haurrak direla kontuan izanda, erabilitako baliabide estilistikoak nahiko sinpleak izango dira.

Beste alde batetik, aipatzekoa da, liburu honen lehen argitalpena 2003ko azaroan izan zela, eta dagoeneko urtebete beranduago, laugarren argitalpena plazaratu dela eta beraz, arrakasta handia izan duela obra honek.

## o KOLOSALA IZANGO DA

### ► Kokapena

Lehen azaldu bezala, istorio hau, 1936ko gerran kokatzen da. Beraz, bere iraupena 1936-1939 urteen bitartekoa izango da, gudaren hasieratik amaieraraino. Oso nabaria da ezaugarri hau, batez ere, protagonistak berak aipatzen dituen zenbait karakteristika dela eta. Honela bada, ia ezinezkoa da pregoilaria duen herri bat topatzea gaur egun, edota gerra garaian bakarrik jazotako gertakari desberdinek (bonbardaketa, alderdien izenak,...) kokatzen gaituzte obraren testuinguru historikoan. Gainera, lehen aipatu ditugun ezaugarriei esker eta noski pertsonaien jokabideei esker, autoreak obraren sinesgarritasuna lortzen du. Nahiz eta gertaera nagusiak euskal kostaldeko fikziozko herrian, Kalaportun, eman.

Bestetik, narrazioa burutzeko, lehenaldiko narratzaile aktorea erabiltzen da. Beraz, liburu pertsonaia nagusia dugu ekintzen berri ematen diguna, beti ere, lehenaldiko denborak erabiliz, bizi izan zuen guztia gogoratzen ari balitz bezala. Azpimarragarria da obraren amaieran narratzaileak egiten duen bat-bateko denbora jauzia, orainaldira salto eginez. Honela, esperantza egun ere bizirik iraun behar duela adieraziz.

### ► Gaia

*Kolosala izango da* obrak, euskal ume baten bizitza kontatzen du 36ko gerra garaian giroturik.

### ► Argumentua

Haur baten aita eta ama, urduri dabilta, gerra laster hasiko omen da eta. Aita, Juan Manuel Garaikoarekin bat egin (herriko jauntxo karlista) eta alderdi tradizionalistarekin batera gerrara habituko da haurra eta haurdun dagoen ama bakarrik utziz euren herrian. Gerra herriko hurrek nahi baino beranduago iritsiko da Kalaportura, baina pixkanaka ohartuko dira guda ez dela beraiek uste zuten bezain dibertigarria.

### ► Gertakizun nagusiak

1. Gerra hastear dago, eta gurasoen arteko eztabaida ematen da. Protagonistak, berriz, Juamanuel eta bere arteko iskanbilekin jarraitzen du.
2. Aita, gerrara abiatzen da karlistekin batera. Bitartean, Kalaportuko haurrak gerraren zain daude ikusmen handiz. Herrian, denak berdin jarraitzen du, hala ere, udatiarrak joaten hasiak dira eta biztanleriaren artean urduritasuna da nagusi.

3. Danboliteroak, pregoia aditzera ematen du. Honen esanetan, gerra egoera deklaritzen da eta ondorioz; greba egitea, propaganda egitea eta aginduak ez obeditzea edonor fusilatzeke arrazoia izan zitekeen. Honela, herriko alkateak eta beste zenbaitek egoeraren aurrean zer egin eztabaidatzeko biltzen dira. Hala ere, bi edo hiru orduren buruan, komunistak iritsi eta Guardia zibilen kuartela hartzen dute.
4. Haurrek gertatutakoa ikusi eta gero, herriko abadearekin topo egiten dute, honek laguntza eske jotzen du beraiengana. Hala, elizara joango dira berarekin batera eta, zenbait lanetan lagundu beharko diote.
5. Haurra etxera itzuli eta amari azaltzen dio non ibili den. Honek, kezkatu hartzen du abadearekin egon izandakoaren berria. Batez ere, bere semeak gerra hain gogoko izateak ikaritzen duelako. Bien bitartean, gerrak aurrera egiten du eta Nafarrak Kalaportutik geroz eta hurbilago aurkitzen dira.
6. Errepublikarrak herrian nagusi dira. Hori dela eta; herriko karlistak preso hartuko dituzte, eskolak errepublikarren gustukoak izango dira eta herriaren laguntza eskatuko dute tropa errepublikarrentzako armak, arropa,...lortzeko.
7. Haurraren arreba jaiotzen da, aldi berean, aitaren berri izango dute. Gainera, Euzkadiko gobernu sortu berria zen egun haietan eta eskolan ere, hori nabaritzen zen, eskolara inspektore bat bidaliko baitute.
8. Gudariak, herria hartzen dute, bertan bere kanpamendua kokatzen dutelarik. Han, Jose Mari eta gure protagonistak, nafar gudari baten lagun egingo dira. Handik pare bat egunetara, alemanek, Kalaportu bonbardatuko dute. Haurra, kanpandorrean ezkutaturik gertatutakoaz deskribapen zehatza egingo digu.
9. Herritarrak beldurturik beste eraso bat jasateko beldur dira, horregatik, gordelekuak eraikitzeari ekiten diote. Baina, Kalaportun izandako hurrengo gatazka ez da airez izango, itsasoz baizik. Honela, bonbardaketa egunaren biharamunean destruktore eta gudariz osaturiko "Bou" baten arteko norgehiagoka aurrez aurre biziko dute. Azkenean, gudariak galtzaile suertatuko dira.
10. Herrian, urduritasuna da nagusi. Batzuk, errefuxiatuek, herritik alde egin dute. Bitartean, gudariak karlisten erasoari aurre egiteko prestatzen dabiltza. Egun batzuen buruan, karlistak Kalaportura iritsiko dira Zestoa hartu ostean. Hiritar batzuek, ihes egingo ditu baina beste batzuek, alkatea besteak beste, herrian geratuko dira.
11. Karlistak herria hartu eta berriro ere azalduko dira harro-harro ihes egin zuten herriko tradizionalistak. Hauek herriko batzokia erreko dute, etxeetan ostu eta alkatea fusilatuko dute beste herritar batzuekin batera.
12. Haurra eta Jose Mari erreketean kanpamendura sartzen saiatzen dira. Soldadu batek jarraitu egingo die eta sekulako igaroko dute. Baina azkenean, soldaduak haur batzuk izan direla ikustean ihes egiten utziko die. Hurrengo egunean, Juan Miguel Garaikoa alkate izendatuko dute, bitartean gerra amaitzear dago eta Franco izendatuko dute gobernuaren buru.

13. Aita herrira itzultzen da eta bere emaztearen nahiaren kontra, bere semearekin paseoa doa karlisten uniformea kendu gabe. Haurra, bere aita bezain harro aurkitzen da. Baina aitak berriro ere alde egin beharko du gerrara. Aldi berean, protagonista eta bere lagun mina, beraien atzetik jarraiki zebilen nafar tradizionalistaren lagun egingo dira, tipo bitxia dela sumatuko baitute, izan ere, tradizionalista izanik Bibliako orriak erabiltzen baititu tabakoa erretzeko.
14. Herrian geroz eta ohitura karlista gehiago ezartzen dira. Hala nola, agur erromatarraren erabilera, eskolako irakasle berria,... Era berean, haurrak karlisten alderdian izen eman dezaten, Pelaio eta Margarita taldeak osatzen dituzte. Gure pertsonaia nagusiak, Pelaioen bat egingo du, herrian zehar zenbait lan egin beharko dituztelarik. Baina, protagonistaren zoritxarrerako Juamanuel izendatuko dute Pelaioen buruzagi.
15. Ama eta semea aita noiz agertuko zain daude. Haurrak, elizan aita itzul dadin otoitz egingo du, era berean, elizan ezagututako neska ilegorri batetaz maiteminduko da. Baina, Juamanuel egoeraz ohartzean bi gazteak izorratzen saiatuko da ahal bezala. Protagonista Juamanuelen jarrerarekin nazkaturik, Pelaio izateari uko egingo dio, hori dela eta, Pelaioek egun gutxiren buruan torturatu egingo dute.
16. Aita gerratik itzuli da baina euren harridurarako zango gabe egingo du. Hori dela eta, etxeko egoera geroz eta gogorragoa bihurtuko da, aita pixkanaka zoratuko baita, nahiz eta bere lagunak bisita jaso. Halako batean, aitak bere emaztea hiltzen saiatuko da, baina, haurrak ausardia handiz ama salbatu egingo du. Handik aurrera konturatuko da protagonista gerrak ezertarako balio ez duela.

### ► Egituraketa

Liburuaren honen egituraketa, lineala da. Hau da, egituraketa kronologikoa erabiltzen da istorioan zehar. Narratzailea lehenengo pertsonakoa izango da, eta lehenaldian arituko zaigu obraren amaieran izan ezik, non bat-batean, orainaldian aurkituko garen. Aipatu beharra dago, liburua hainbat kapitulutan banatzen dela, denak zenbaki eta izenbururik gabekoak, bakarrik, hutsune batzuen bidez bereizitakoak.

### ► Pertsonaiak

*Kolosala izango da* liburuan, pertsonaiak oso garrantzitsuak dira istorioaren garapenerako. Guztiz sinesgarriak dira pertsonaiak, garai hartako gizartean aurki zitezkeen oso antzekoak. Ondorengo hauek, dira nire ustez, aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

**Haurra:** Istorioko pertsonaia nagusia dugu baita narratzailea ere. Hamar urte inguruko mutila dugu, eta gerrak eraginda bere izaeraren bilakaera antzeman ahal izango dugu, haurra izatetik mutil baten mentalitatea eskuratu arte. Bere kontakizunen bidez ezagutuko dugu gerraren eta bere ondorioen zerizanak. Hala; amodioa, tristura, sumina, poztasuna, alaitasuna, gauzen balioa kontutan hartzen,...ikasiko dugu. Harrigarria da, pertsonaia honen izena obran zehar inon ez agertzea. Honela bada, pertsonaiaren bizipenak hurbiltasunez bizi ditzakegu, ia-ia bere azalean sar gaitezkeelarik. Gainera, aipaturiko ezaugarri honen bitartez, pertsonaiarekin batera hazi egingo da irakurlea, eta agian pertsonaiak bezala, gerra bat ere dibertigarria ez dela uste izango du obraren amaieran.

**Ama:** Haurraren ama dugu. Gerra hasi bezain laster, bere senarra gerrara abiatuko da karlistekin bat. Hau ez da emakumearen gustukoa izango, hau ez baitago tradizionalisten alde eta gerra saihestu behar dela uste baitu. Emakume gogorra dela ikusiko da istorioan zehar,

batetik bi seme alaba haziko dituelako bera bakarrik gerra garaian. Eta bestetik, bere senarraren hutsunea ahal bezala jasango duelako. Nahiz eta bere semeari esan behin baino gehiagotan bere senarra maite duela, ez dirudi hala denik, batez ere istorioaren amaieran non gizona, zoro bihurtzen den. Nire aburuz, pertsonaia honek, garai hartan hainbeste sufritu zuten emakumeen isla da. Honela, emakumearen gogortasunaren bitartez, esperantza edozein egoeraren aurrean beti bizirik iraun behar duela adierazi nahi zaio irakurleari.

**Aita:** Gizon karlista da, Juan Manuel Garaikoaren miresle handienetako bat. Bere emaztearen nahiaren kontra, gerrara abiatuko da gogo handiz, karlistekin bat egiteko. Jenio biziko pertsona da. Nahiz eta obraren zati nagusian etxetik at ibili, umearen oroimenean presente egongo da. Zango barik itzuliko da gerratik, hori dela eta, zoratu egingo da. Pertsonaia nagusiarentzako, haurrentzako, ezinbestekoa da bere aita, asko miresten baitu bere jokabidea, hau da, gerrara joan izateagatik. Baina, arestian aipatu bezala, bere aita zoratzeari eta bere ama hiltzen saiatzean, aitarengan zuen konfiantza osoa galdu egingo du.

**Jose Mari:** Umearen lagun mina da. Nahiz eta, Jose Mariren aita abertzalea izan eta gure protagonistarena karlista izan. Hala ere, bi aitak ez dira beraien artean hain desberdinak, gerra dela eta, biek etxetik alde egin dutelako. Beraien semeak bitartean, elkarrekin dabilta Kalaportuko kaleetatik zehar gerrak eragindako sufrimendutik ihes egin nahian. Hala ere, askotan zaila suertatuko zaie, baina, euren barnean esperantzak beti bizirik dirau.

**Juan Manuel Garaikoa:** Herriko jauntxo aberatsa da. Protagonistaren aita dugu, gizon honen jarraitzaile sutsuenetako bat. Hau ere, karlisten aldekoa da, honela, gerra amaitzean, herriko alkate izatera iritsiko da.

**Jumanuel Garaikoa:** Juan Manuel Garaikoaren semea da. Pertsonaia nagusiaren etsaia, elkarrekiko sekulako gorrotoa baitote. Handinahikeriaz jotzen duen haurra dugu, beti ere, eskatutako guztia aitari esker lortzen duena. Pertsonaia nagusia baino urtebete nagusiagoa da, horregatik bera baino txikiago diren haurrak izorratzea gogoko du besteak beste protagonista eta bere lagunak. Liburuko protagonistak berari aurre egin ziolako edota beste edozein arrazoigatik, pertsonaia nagusia biziki gorrotatzen du, hainbeste, "Txaplata" ezizenez deitzen duela. Harrigarria da, bi pertsonaia hauen aitak hain lagun onak izanik, horrenbesteko ezinikusia izatea euren semeek beraien artean. Aldiz, protagonistaren lagun mina, Jose Mari, aita abertzalea du. Beraz, autoreak bi egoera hauen bidez zera adierazi nahi duela deritzot; lagunak, lagun izaten jarraitzen dutela beraien familien arteko ideologia desberdintasuna nabaria izanda ere.

**Neska ilegorria:** Liburuko pertsonaiak gogoko duen neskatoa da. Egia esan, obran zehar ez da askotan azaltzen, baina garrantzi handikoa da gure pertsonaia nagusiarentzako. Neskak, halaber, protagonista gogoko du, baina, herrikideek esango dutenaren beldur da. Batetik, kristaua izanik, ez du egoki ikusten mutil batekin ibiltzea eta bestetik, Jumanuelen jarrera ikusita, beldurra ematen dio protagonistarekin ibiltzeak.

**Felix:** Herriko alkatea dugu. Egia esan, ez dakigu zein alderdi politikokoa den, baina gauza ezaguna da gerra guztiz gaitzesten duela, ez baitu uste euskaldunen arteko gerra denik. Bere pentsaera dela eta, herriko beste zenbait biztanlerekin batera fusilatua izango da.

**Abadea:** Abadea, elizaren gehiengoaren antzera, karlisten aldekoa dugu. Horregatik, eta batez ere karlistak herrian nagusitzean, bere sermoiak, politika kutsu nabaria hartuko dute. Hau ere, pertsonaia nagusiaren lagunetako bat delarik.

## ► Baliabideak

Eleberri honek hainbat baliabide erabiltzen ditu, sentimenak irakurleari erraztasun handiagoz igorri ahal izateko.

Hasteko, obran zehar erabilitako espresaera azter dezakegu. Espresaera nagusia obra honetan, narrazioa da. Hala ere, deskribapenek eta elkarrizketek berebiziko garrantzia dute obraren garapenean. Batez ere, egoeraren eta sentimenduen berri emateko. Aipatzekoa da, nola azkeneko kapituluaren protagonista zuzenean irakurleari hizketan aritzen zaion, itxaropena gordetzeko ahaleginak merezi duela esanez.

Beste alde batetik, narratzaile mota aztertzea derrigorrezkoa da. Izan ere, narratzaile aktorea da obran zehar azaltzen zaigun bakarra, hau da, eleberriko protagonista bera da istorioaren narratzaile. Horregatik, bere ikuspuntutik ezagutuko ditugu gertaerak. Gramatikalki narratzaile aktorearen erabilera, lehen pertsonako aditzen bidez adieraziko da.

Baina, inolako zalantzarik gabe, tropoak dira baliabideei dagokienez aipamen berezia merezi dutenak. Izan ere, baliabide estilistikoak non nahi aurki ditzakegu batez ere metaforak eta konparazioak. Honela bada, honakoak aurki ditzakegu askoren artean:

### □ KONPARAZIOAK:

<<Eulitzarrak haragi ustelduaren gainean bezala.>> (64. or.)

<<Kanpandorreko ezkilak, dinbili-danbala hasi ziren jotzen, deabruak joko balitu bezala.>> (79.or.)

<<...karlistak agertu ziren kalera, txindurrien moduan...>> (79. or.)

<<Bihotza okaran moduan lehertuko zitzaiola...>> (105. or.)

<<Berba haiek intsektuen moduan bilatzen zuten zirrikitu bat gure bizimodu arruntaren umilazioan...>> (107.or)

<< Beldurturik ezkututzen zen (...) sugandilaren moduan.>> (117. or.)

<<Gauak olatu handien modukoak ziren etxeen kontra jotzen, arraintxo itsuen atsekabearekin bizi ginen.>> (118.or)

<<...txibiezurra baino zuriagoa...>> (127. or.)

<< begiak ur izoztuaren moduan zabalik, eta gogoa, gogoa zangoen bila joana bezala.>> (128.or.)

□ ONOMATOPEIAK: Sarritan agertuko zaizkigu onomatopeiak, ez baitugu ahaztu behar narratzailea, haurra dela eta hurrek sarritan deskribatu ezin dituzten egoerentzako onomatopeiak erabiltzen dituztela.

<< Halaxe egiten zuen danboliteroak, **tan tan tatantan**...>> (23. or.)

<< Halakorik (...) **dinbili-danbala**...>> (63. or.)

<< ...aireplanoak hegalk zabalik **trrruuu**...>> (64. or.)

<<**Zzziiuu bruumm** eginez erortzen...>> (64.or)

<<...zeremonia inportantea zen soldadu nekatu (...) **krak** egitea>> (72. or.)

<< **ta ta ta ta tata pum pum** eta tiro soinuarekin...>> (85. or.)

□ METAFORAK: Hau ere, maiz azaltzen zaigun baliabide estilistikoaren artean koka dezakegu. Ziurrenik, onomatopeiatan gertatzen zen bezala, hau da, umeak gertaerak deskribatzeko zuen erarik errazena.

<< ...izotzezko begiak zulo-zuloan...>> (131. or.)

<<Neguak bere kolore astuna ipintzen zion larruan.>> (121. or.)

<<...hildakoen odol minerala kanposantu sakonetan herdoiltzen zen artean.>> (75. or.)

<<...puntu suspentsibo haiek lurra jotzen zutenean...>> (64. or.)

Hala ere, badaude noizbehinka agertzen diren beste tropo batzuk ere. Hala nola honakoak:

<<Irratia piztu eta gerra gerra gerra gerra gerra entzuten (...). Parteetan gerra, gerra, gerra, gerra berbak segalarien soinua egiten zuen.>> (42. or) Argi eta garbi agertzen zaigu erreduplikazioa.

### ► Pasarte gogokoenak

Obran zehar gustukoenetako izan dudan pasarte bat honakoa izan da:

<<Ez genekien gerra hain makurra izango zenik, jende guztiaren etxera sartuko zenik, eskailerak igo, atea jo, eta barrura sartuko zela, eta atea jo gabe ere sartuko zela. Horrela hondatu ziren gure bizitza txikiak.>> (134. or.)

Bertan, haurrak, gerra amaieran egindako hausnarketa azaltzen da. Aipagarria iruditzen zait pasarte hau, ezen pertsonaia nagusia gerraren ondorioez jabetu dela adierazten du. Nire iritziz, autoreak pasarte honen bidez, gerraren gogortasuna islatu nahi izan du, Obraren hasieran zuen pentsamoldearen zeharo desberdina dela argi eta garbi ikus daiteke. Horregatik iruditzen zait pasarte hau hain garrantzitsua, haurrak gerra dela eta, bizi izandako bilakaeraren isla delako.

Aldiz, obraren hasierako hurrengo pasarte honekin alderaturik, hurrek, gerrak ekar ditzakeen ondorioez kontzientziaturik ez daudela adierazten du. Protagonistak euskal gobernuko inspektore batekin duen elkarriketaren bidez:

- <<Ez duzu bakerik nahi orduan. Zer nahi zenuke ba?
- *Gailetak jatea.>> (59. or.)*

Honela bada, gerrak berarekin zerikusirik ez duela usteko du hasiera batean, eta berak ikuskizunaz disfrutatu ahal izango da baina, denbora joan ahala, hasierako lehen pasartean azaldu bezala, gerrak bere bizitzan eragin handia izango du ere bai.

Aipatzekoa den beste pasarte bat honakoa izan daiteke:

<<Marrak egin, marrak endredatu, giza gorputzaren zatiak ahalik eta okultismo gehienez ensanblatzen.

- *Zergatik ez duzu marrazten jendea den moduan?*
- *Halakoa da jendea.>> (115. or.)*

Nire ustez, pasarte hau oso adierazgarria da, izan ere, umeak bizi duen egoera deskribatzen baitu. Marrazki sinple batzuen bidez, gatazkak eragindako gizarte zatiketa adierazten du ia oharkabea. Horregatik ageri dira gizabanakoak zatiturik, gerraren ondorioz hilak edo zaurituak suertatu direlako.

Arestian, aipaturiko pasarteez gain, azpimarragarriak diren beste zenbait pasarte topa ditzakegu. Ondorengo hau adibidez:

<<Tradizionalista omen zen, baina eman zuen lehenengo agindua kaleen izen zaharrak aldatzekoa izan zen...>> (89. or.)

Aurreko pasarteak ez bezala, honek ez du berebiziko garrantzirik istorioaren bilakaeran. Baina, barregarria iruditu zitzaidan irakurtzerako garaian, haurrak ez duelako ulertzen, zergatik tradizionalistek berrikuntzak egiten dituzten kontserbadoreak izanda. Honela bada, idazleak haurrak egoerari buruz duen jakineza adierazten du.

Azkenik, lanaren atal honekin amaitzeko, hurrengo testu zatia aukeratu dut:  
<<Baina gerra naturala zen, jolastea bezala. Naturala zen lantzean behin edozein gauza erabakitzeko gizonek joan eta batak bestea garbitzea, eta batak besteari bizitzen ez uztea, eta mapetako populazio guztia tristuraren mareapean hondoratzea.>> (54. or.)

Inolako zalantza barik, gehien harritu nauen pasarteetako bat da hori. Behin eta berriz esan dugun bezala, pertsonaia nagusiak gerrari buruz duen ikuskera zeharo aldatzen da obran zehar. Kontuan hartzekoa da pasarte hau istorioaren erdialdean kokaturik dagoela, hau da, haurrak bilakaera jasaten hari den bitartean. Horregatik, gerrari buruz naturaltasun osoz mintzatzen da, are gehiago, ohikoa iruditzen zaio gizakiak bata bestea garbitzea baita gizartean eragiten duen sufrimendua ere. Gaur egun ordea, gogoeta hori egingo lukeen ume bat topatzea oso zaila suertatuko litzaiguke.

### ► Iritzia

Aztergai izan dugun obra, berria dugu. lazko azaroan lehen aldiz argitaratutakoa eta dagoeneko, 9400 ale argitaratu dira. Beraz, arrakasta handiko liburua izan dela baieztatu dezakegu. Nire iritziz erraza da ulertzen gertaera hau, izan ere, liburuak oraindik askoren oroimenean bizirik dirauen gerra bati buruz mintzatzen baita era oso original batean. Honela, alderdikieretan sartu gabe, ume batek gerra garaian bizi duen bilakaera biziko dugu. Hala ere, salmentetan eragina izango zuen Joseba Sarrionandiak idatzitako obra izatea, aski ospetsua baita euskal literatur munduan.

Liburu oso aberatsa dugu. Batetik, baliabide estilistikoak non nahi aurki ditzakegulako, baina beti ere irakurlea nekatuko ez dituen. Tropo hauek, irakurleari sentimenduak igortzeko erabiliko dira gehienbat, honela askotan irakurlea hunkituko delarik. Metaforak, konparazioak,...azalduko zaizkigu baina autoreak era berezi batean erabiliko ditu ironiak. Hauek aipamen berezia merezi dute, haurrek gerra egoeraren aurrean duten ezjakintasuna adierazteko erabiltzen baititu autoreak. Honela, harrituta geratuko gara haurrak emandako zenbait erantzun irakurtzean.

Beste alde batetik, pertsonaien jarrera aztertzea derrigorrezkoa da. Hots, garai hartan horrelako familia mordoa topa zitekeen. Horrek irakurleari hurbiltasuna igortzen dio, are gehiago protagonistek izenik ez izatea. Honela irakurle oro identifika daitekeelarik egoera horrekin.

Arestian esan bezala, obra originala dugu *Kolosala izango da*. Hau baieztatzeko, soilik esan behar da Espainiako gerra zibila ume baten ikuskeratik lantzen duela.

Baina, obra honek baditu bere alderdi kaxkarrak ere. Batetik, batzuetan erritmo geldoegia daramala dirudi, noizbehinka irakurlea aspertuz. Horren ondorioz, irakurlea edo ni behintzat, ez da oso erraz lotzen istorioari. Asti bat behar du hori lortzeko. Hala ere, liburua pare bat egunetan irakur daiteke, bere luzaera motza baita. Gainera, irakurleari interesa pizten dioten zenbait gai, lerro pare batzuetan azaltzen dira, gertaerak haurrari eragin dion samina azaldu gabe, hala nola, protagonistak lagun duen nafar tradizionalistaren fusilamentua.

Eleberria irakurri ostean konturatuko gara irakurleak bidali nahi digun mezuaz. Horretarako denboran jauzi egin eta bat-batean protagonista gaurko garaietan aurkituko da. Halako batean guardia zibilek inguratuko diete bera eta bere lagun minari. Guardiiek itaundu arren, *Krone* zirkoari buruz berbetan zihardutela erantzungo diote, zirko horren etorrera kolosala izango dela esanez. Ondoren, irakurleei zuzenduko zaie hitz hauekin: << *Ez duzuela sinisten? Baietz ba, munduaren ordu agoniko hauetan etorriko da, eta kolosala izango da.*>> Honela, itxaropentsu

bizi behar dela edozein egoeraren aurrean adieraziko digu. Gainera, pasarte honen bidez ulertuko dugu liburuaren izenburuaren zentzua.

Laburbilduz, obra oso on baten aurrean aurkitzen garela esan daiteke. Bere alderdi on zein hain ez hobeaz osaturikoa. Denbora-pasa ona da liburu honen irakurketa, aurretik irakurri ditugun beste zenbait liburu baino askoz ere dibertigarriagoa eta 15 urtetik gorako edonorentzat gomendagarria. Arestian esan dugu autoreak ez zela inolako ideologian sartzen, horren ondorioz, edonori gustatu litzaiokeen obra dugu. Aspektu hau oso garrantzitsua iruditzen zait, niri behintzat ia ezinezkoa suertatuko litzaidakeelako gai hau tratatzea inolako alderdikeriatan jauzi gabe, eta ez ere objektibo batean Joseba Sarrionandiak egin duen bezala.

## o BIBLIOGRAFIA

- *Kolosala izangoda*, Joseba Sarrionandia. Txalaparta.
- *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, Askoren artean. Klaudio Harluxet Fundazioa.